

# UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

## NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

### Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Elikadura iraunkorraren erradiografia Arabako Campus mailan

### Egilea

Amaia Gorrotxategi Etxaniz

### Gradua

Farmazia

### Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

3. Osasuna eta ongizatea,
4. Kalitatezko hezkuntza

### Laburpena

Modu orokortu baten, elikatzea egunero eta behin baino gehiagotan egiten dugun ekintza da. Gainera, elikatu baino lehenago eta beranduago Agenda 2030ko beste prozesu askorekin eta GJHeKin zerikusia duten ekintzak daude. Hala nola, elikagaien ekoizpena, horien erosketa zein sortzen duten hondakinen kudeaketa. Honen harira, lan honen xede nagusia, unibertsitate mailan, jasangarritasunarekiko eta erantzukizun sozialarekiko ezagutza zein jarrera neurtzea izan da, elikadura ardatz zentralizat hartuta. Horretarako, "Radiografía de la percepción de la competencia sostenibilidad en el ámbito de la alimentación en el alumnado del campus de Álava" CBL proiektuaren barruan Arabako kanpus mailan egindako inkesta baten emaitzak aztertuko dira. Aipatutako inkesta hau etika batzordeak onartua izan da ondorengo baimenarekin: M10\_2016\_063MR1\_CHURRUCA Ortega. Arabako kanpuseko 7 zentro desberdinetako ikasleek hartu zuten galdetegian parte: Ingeniaritza eskola, Ekonomia eta Enpresa fakultatea, Hezkuntza eta Kirol fakultatea, Farmazia fakultatea, Lan Harreman eta Gizarte Langintza fakultatea eta Medikuntza eta Erizaintza fakultatea. Iraunkortasunak hainbat arlo barne hartzen dituenenez, elikadura kontzeptua hartu da inkestaren ildo nagusitzat lehenago aipatu bezala, eta emaitzak orokorrean jasangarritasunarekiko jarrerarekin lotzea posible dela onartu da. Lanaren helburua iraunkortasunaren inguruko ezagutzaren garapena izango denez, ezinbestekoa izango da gaur egungo jakintza mailaren egoera ezagutzea eta finkatzea. Inkestaren azken emaitzak 2021eko abenduan jaso ziren, eta guztira 175 ikasleek hartu zuten parte. Galdetegia 40 galdera ezberdinez dago osatua eta 0tik 4rako eskala batean, hurrengo aztertzea du helburu: 1. gaiarekiko ezagutza maila, jasangarritasuna erantzukizun

sozialarekin zein beste gai batzuekin erlazionatzeko eskatuz; 2. garaiarekiko jarrera, zenbait ekintza burutzeko maiztasunaren inguruan galdetu; 3. euren jarreran eragiten duten eragileak; 4. graduetan jasotzen dituzten gaitasunak. Jarrerari dagokionez, datuek erakutsi dute orokorrean, ikasleek ez diotela garrantzi handiegirik ematen era jasangarri batean elikagaiak erosteari. Inkestan parte hartutako ikasleen %20ak baino gehiagok, ez diote garrantzirik ematen erosten ari diren produktuak garaikoak diren, bertokoak ote diren ala zein ekoizpen eredutakoak diren. Horrez gain, %40ak ez ditu kontuan hartzen erositako elikagaiak sortzen dituzten hondakinak. Hala ere, inkestatuen %80 inguruk dio elikagai-soberakinak aprobetxatzen dituela, eta gainera, zabor mota guztiak egokiro banatzen dituela. Jarrera horren arrazoietan sakontzeko parte-hartzaileen graduetan garatutako gaitasunen eta beraien ogibideko gaitasunen arteko erlaziora jo daiteke. Argi dago, ikasleek iraunkortasunaren eta gizarte erantzukizunaren arteko lotura azpimarratzen dutela beraien ogibideetan. Jasotako erantzunen arabera, ikasleen %74ak uste du iraunkortasunak eta gizarte erantzukizunak garrantzia handia dutela euren profesioan. Baina oso adierazgarria da, soilik %35ak diola gai hauek behar bezala lantzen direla euren graduetan. Premia handieneko arloak zehazteko nahiarekin, eskalako behealdean emandako erantzunen portzentaiak aztertu dira (0tik 4rako eskalan, 2 baino baxuagoak diren erantzunak) jarrera eta ezagutza neurtu lau izan dira aukeratuak izan diren galderak. Portzentai honek %20a gainditzen duen kasuak esanguratsutzat hartu dira eta horrela, lau lan eremu ezberdin desberdinu dira. 1. Elikagaien balio nutritibo eta energetikoaren eta garapen jasangarriaren eta erantzukizun sozialaren arteko erlazioaren ezjakintasuna. Galdetegian parte hartu zuten ikasleen ia laurdenak ez du kontzeptuen arteko erlaziorik aitortzen. 2. Aholku dietetikoaren eta garapen jasangarriaren zein erantzukizun sozialaren arteko harremana. %25aren ustetan, kontzeptu hauen artean ez da loturarik existitzen. 3. Partehartzaileen %40 onartzen du ez dituela kontuan hartzen erosten dituzten elikagaiak sortzen dituzten hondakinak. 4. ikasleen %45ak onartzen du ez duela adina kontuan hartzen erosketak egiterako orduan, eta hau gizarte arduragabekoaren isla izango da. Behin behar eta gabezia nagusiak identifikatu ostean, hautatuak izan diren galderak fakultateka aztertu dira eta grafiko ezberdinetan islatu da lortutakoa. Elikagaien balio nutritibo eta energetikoaren inguruko gaia lantzeko premia nagusia Letren Fakultateko ikasleen artean behatu da izan ere, soilik 21%ak onartu du jasangarritasunarekin eta erantzukizun sozialarekin dagoen harremana. Ingeniaritza eskolan ere nahiko emaitza kaskarrak bildu dira. Aholku dietetikoari dagokionez, ezjakintasun nagusia Ingeniaritza eskolan behatu da (%17ak onartzen du gaien arteko lotua). Kontrara, esanguratsua da medikuntza fakultatekoen artean lortutako emaitza, ez baita egon ikaslerik aholku dietetikoaren eta erantzukizun sozialaren eta jasangarritasunaren arteko zerikusia ukatu duenik. Sortzen diren hondakinen inguruko kudeaketari dagokionez, ikasketak direnak direla ere emaitza nahiko antzekoak lortu dira. Hala ere, gaiaren inguruan hezteko premia nagusia Hezkuntza eta Kirol fakultateko ikasleek erakutsi dute. Azkenik, erantzukizun sozialari erreferentzia zuzena egiten dion galdera izan da aztergai. Kasu honetan ikusi da, behar eta gabezia nagusia Letren eta Medikuntza eta Erizaintza fakultatean identifikatu da. Arestian esan bezala, ikasleei, jasangarritasun gaitasunen inguruan ere galdetu zaie. Kasu honetan lortu diren emaitzak oso adierazgarriak izan dira, eta eskuartean dagoen proiektuaren beharra azaleratzeko balio dute. Atal honetan bi galdera esanguratsu planteatu

dira. Alde batetik, iraunkortasunak eta erantzukizun sozialak beren profesioan duten garrantziaren inguruan galdetu zaie. Kasu honetan, lortutako datuak fakultateka aztertzea izango da zentzuzkoa, eta ez modu orokorrean. Honen harira, ikasleei euren graduak gai hauek behar bezala lantzen ote diren itaundu zaie eta ondoren, aipatutako bi galderen erantzunak konparatu dira, dauden beharrak asetzen diren ala ez ondorioztatzeko. Orokorrean ikusi da, fakultate gehienetan gabezia handiak daudela jasangarritasunaren inguruko hezkuntzan. Hala ere, behar esanguratsuen Ingeniaritza eskolan behatu da eta Hezkuntza eta Kirol fakultatean ondoren. Halaber, aipagarria da farmazia fakultatean lortutako emaitza ez positiboak, asegabetasun balioa %40rik gora kokatuz. Galdetegian identifikatutako informazio eta hezkuntza premia honi erantzun bat emateko bidean, material didaktiko ezberdina sortzea izan da hurrengo pausua. Horretarako, lehenago aipatu diren lau itaunetatik (elikagaien balio nutritibo eta energetikoaren garrantzia, adina kontuan hartzea, aholku dietetikoaren garrantzia eta hondakinak kontuan hartzea) bat esleitu zaio fakultate bakoitzari, ezjakintasun nagusia erakutsi dutena. Proiektua aurrera eraman ahal izateko, CBL proiektuko kideak elkarlanean aritu dira, bizpahiru kideko taldeetan. Fakultate bakoitzerako materiala eratzeko garaian, modu berean lan egin da talde bakoitzean. Lehenik eta behin, fakultate horretan ematen diren graduak zeintzuk diren aurreikusi da eta honekin lotuta, bertako ikasleen ezaugarriak zeintzuk izan ohi diren definitu dira. Bestalde, galdetegiko partehartzearen eta ikasleek izandako interesaren arabera, fakultate bakoitzeko beharrak definitu dira eta lan arlo desberdinak hartu dira aintzat. Eratu den materialaren deskribapen orokorra egin ostean, farmazia eta letren fakultaterako prestatu den materialaren fitxa teknikoak aurkezten dira gainontzekoen eredu gisa. Bi fakultate hauek aukeratzearen arrazoiak desberdinak izan dira. Alde batetik, farmazia fakultateko erronka aukeratu da ni farmazia graduak azken urteko ikaslea naizelako eta gainera, lanean zehar testuingurua farmazia alorrean zehaztu delako. Bestalde, letren fakultatea hautatu da horrela bi alor guztiz kontrajarrien adibideak emateko. CBL proiektuaren baitan farmazia fakultateko ikasleentzat zuzendutako erronka - Gaia: Elikagaien sortutako hondakinak kudeaketa - Non: Instagramen - Zer: Reels-erako bideo lehiaketa - Deskribapena: Farmazia fakultateko ikasleei zuzendutako erronka bat proposatu da. "Zein da elikagaietatik eratorritako hondakinak murrizteko bururatu zaizun biderik originalena?" lelopean, bideo lehiaketa bat prestatu da. Helburua elikagaiak erosterako orduan, prestatzerakoan edota kontsumitzerako orduan sortzen diren soberakinak edo hondakinak gutxitzea posible dela erakustea izango da era dinamiko batean. Horretarako ikasleen sormenez baliatuko gara. Parte hartzea sustatzeko erronkako parte hartzaileen artean sari bat zozketatuko da eta irabazleak beste sari bat izango du (oraindik zehaztu gabe daudenak). Horrez gain, ezinbestekoa izango da EHU-ko ikaslea izatea eta zehazki, farmazia fakultatean irakasten diren graduatutako ikaslea izatea. Hau horrela dela ziurtatzeko, partaideek euren bideoan, CBL taldeak daukan instagrameko kontua etiketatzeaz gain bere izen abizenak idatzi beharko ditu, datu-basean baldintzak betetzen direla baieztatu ahal izateko. CBL proiektuaren baitan letren fakultateko ikasleentzat zuzendutako infografia - Gaia: Elikagaien balio nutritibo eta energetikoa eta adinaren garrantzia, jasangarritasuna lekuko - Non: Fakultateko pantailan - Zer: Infografia - Deskribapena: Helburua gure elikatzearen elikagaien balio nutritibo eta energetikoak eta era berean, gizartearen inguratzen duen adinkeria kontzeptuak daukan zer esanaz ikasleak kontzientzia. Azterketan jaso diren

datuetan oinarrituta fakultate honetako ikasleen parte hartzea sustatzea ez da erraza, gaia ez baita bereziki beraien interesekoa beraz, material estatikoa sortzea izan da egokiena. Ikasleen ezaugarriak kontuan hartuta eta beraien interesa pizteko asmotan, esaera zaharretan oinarritutako materiala sortu da, gazteleraz zein euskaraz.

## 2030 Agendaren GIH Ekarpenak

Elikadura, giza osasuna eta gure ingurumena zuzenki erlazionatzen dituen kontzeptu bat izango da. Dietarekin erlazionatutako aldagaiak, mundu mailako gaixotasun askoren eragile edo laguntzaile baitira, eta gainera, elikagaigintza klima aldaketaren eragile handienetariko bat kontsideratzen da. EAT-Lancet osasun planetario terminoan oinarritzen den batzorde zientifikoa da, eta dietek giza osasunean eta ingurune iraunkortasunean daukan eragina azpimarratzen du. Elikatzea egunero eta behin baino gehiagotan egiten dugun ekintza da eta hartara, elikatu baino lehenago eta beranduago Agenda 2030ko beste prozesu askorekin zerikusia duten ekintzak daude. Hala nola, elikagaien ekoizpena, horien erosketa zein sortzen duten hondakinen kudeaketa. GJHko helburuen arteko lotura frogatzeko adibide xume bat jarritz: emakumeei hezkuntza duin bat eskaintzeak (4.helburua), ama-osasuna hobetzen lagun dezake (3.helburua), honekin batera haurtzaroko desnutrizio tasa (2.helburua) gutxitzea lortuko litzake, pobreziaren desagertzea (1.helburua) sustatuz. Testuinguru honetan, elikadura ardatz zentralizat jo daitekeela onartu da unibertsitate mailan jasangarritasunaren aldeko jarrera neurtu ahal izateko. Horretarako elikadura jasangarriaren inguruan galdetu zaie ikasleei. Lan honetan batez ere 3. helburuari egin zaio erreferentzia. Jakina da, elikatzeko era jasangarri batek norbanakoaren osasuna hobetzen lagunduko duela beraz, gizartearen osasuna eta ongizatea bermatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da elikaduraren inguruko hezkuntza egoki bat izatea. Hau horrela izanda, GJH-etako 4. helburuari erreparatu zaio. Izan ere, egindako inkestako emaitzetan oinarrituz, elikatzeko modu jasangarri baten inguruko kalitatezko hezkuntza, ikasle ororentzat bermatzea izan da. GrAL honen bitartez, datorren ikasturtera begira, gradu ezberdinetan jasangarritasunaren inguruko ezagutza bultzatzeko hezkuntza materiala sortu da, fakultate ezberdinetako ikasleen profilak kontuan hartuta. Gainera, behin sortu den materialaren erabilgarritasuna frogatu ostean, egin den lana oinarritzat hartu daiteke. Horrela, osasun heziketaz gain, beste gai bat aukeratu daiteke ardatz zentralizat jasangarritasunaren inguruko interesa eta ezagutza bultzatzeko. Honi esker, bizimodu iraunkorrago baten lorpenean aurrerapausoak egitea lortuko da, hau ezinbestekoa izango baita gure planetaren etorkizuna bermatzeko eta biztanleoi bizi baldintza egokiak ziurtatzeko. Aipagarria da baita, lan hau "Congreso Internacional Sostenibilidad Curricular y ODS en la Formación Universitaria" izenpean ospatuko den iraunkortasunaren aldeko Valentziako kongresu batera aurkeztu dela kapitulurako aukeratu dutela. Honek argitzera ematen du lan honen bitartez, nolabait unibertsitate mailan jasangarritasunaren inguruko ezagutza sustatzen dela.